

ZOKKETAREN OINARRIAK: LILATOIA 2024

LEHENA

2024ko otsailaren 12n eta 13an @sansebastiantourism profileko istorioetan Lilatoiar buruz argitaratutako galderei erantzuten dieten pertsona guztiek hartuko dute parte zozketa honetan.

BIGARRENA

Zozketa bat egingo da lehen puntuan aipatutako baldintza guztiak bete dituzten erabiltzaile guztien artean. Irabazlea Donostia Turismoarekin 48 orduko epean harremanetan jartzen ez bada, beste zozketa bat egingo da.

HIRUGARRENA

Parte hartzeko epea 2024ko otsailaren 12n hasiko da, 12:30ean, eta otsailaren 13an amaituko da, 12:30ean. Zozketaren irabazlearen izena otsailaren 14an argitaratuko da Instagrameko kontu ofizialeko istorioetan eta Donostia Turismoaren webgunean. Instagrameko mezu pribatuaren bidez kontaktatuko dira irabazleak.

LAUGARRENA

Saria:

Zozketaren irabazleek kupoi bat jasoko dute otsailaren 17ra arte Lilaton lasterketarako dortsal batengatik trukatzeko.

BOSGARRENA.

Donostia Turismoak berea du partaidetzatik inor salbuesteko eskubidea, baldin eta iritziko balio delako pertsona horrek iruzurrez edo laidoz diharduela beste parte-hartzaileen kontra.

SEIGARRENA.

Donostia Turismoak oinarri hauetan jaso gabeko egoerak ebatzi ahal izango ditu, baita interpretazioari buruz sor daitezkeen zalantzak ere.

ZAZPIGARRENA.

Zozketa Donostia Turismoak antolatatu du eta bertan ez du parte hartzen eta ez du erantzukizunik INSTAGRAM. INCek.

ZORTZIGARRENA.

Zure datu pertsonalak kudeatzeko erantzukizuna duen enpresa San Sebastián Turismo/Donostia Turismoa, S.A da, Donostian egoitza duelarik eta A-20188884 identifikazio zenbakiarekin. San Sebastián Turismo/Donostia Turismoa, S.A-k zure pribatutasuna eta datu pertsonalen babesari garrantzi handia ematen dio. Hori dela eta, zure informazio pertsonala arreta handiz tratatzen da eta seguru mantenduko da.

Datuak babesteko araudiak diotenaren arabera, zehazki, 2016/679 (EB) Arautegian, 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentu eta Kontseiluko pertsona fisikoen datu pertsonalen babesaren inguruan zehazten denaren arabera, datu pertsonalen tratamendua eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez, parte hartzaile bakoitzak Lege Oinarri hauek onartuta, lehiaketa honetan parte hartzeko emandako datu pertsonalak San Sebastian Turismo / Donostia Turismoa, S.Aren fitxategi batean sartzeko baimena ematen du lehiaketan parte hartzea kudeatzeko eta irabazleei jakinarazteko.

Parte-hartzaileek eskubidea dute (i) beraien datu pertsonaletara sartzeko, baita (ii) zehaztasunik gabeko datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, (iii) datuen tratamendua mugatzeko, (iv) datuen tratamendua ezeztatzeko eta (v) haiek mugitzeko.

Parte-hartzaileak, Kontrol Agintaritzaren baten aurrean erreklamazioa aurkezteko eskubidea izango du, ohiko bizilekua edo ustezko arau-haustea gertatu den lekuan, datu pertsonalen tratamendua egokia izan ez dela pentsatzen bada, baita eskubideak betetzen ez direla uste bada ere.

BEDERATZIGARRENA.

Donostia Turismoak, Instagram-en Pribatutasun Politika arretaz irakurri dezan gomendatzen dio parte-hartzaileari, ondorengo estekan aurki daitekeena:

Instagram: <https://help.instagram.com/155833707900388>

HAMARGARRENA.

Donostia Turismoak oinarri hauek aldatu edo zabaltzeko eskubidea izango du parte-hartzaileen eskubideak kaltetzen ez dituen bitartean.

HAMAIKAGARRENA.

Lege-oinarri hauek Espainiako legediaren arabera arautuko dira. Donostiako Epaitegi eta Auzitegiak izango dute oinarri hauen indarraldiaren, interpretazioaren edo betetzearen inguruan sor daitekeen edozein erreklamazio edo gatazka ebazteko eskumena.

HAMABIGARRENA.

Zozketa honetan parte hartzeak oinarriok erabat onartzea esan nahi du.